

Ikusentzunezkoen Azpifuntsa



Identifikazio-eremua

Erreferentzia-kodea	ES20030AME_AB
Izenburua:	Ikusentzunezkoen azpifuntsa
Datak	1976 / 2010
Deskripzio maila:	02 - Azpifuntsa
Bolumena:	877 grabazio hainbat euskarritan (zinta magnetikoak, VHS, HI8, Minidisk, MiniDV, CD eta DVD); ordu inguru. Gordetzeko kopiak egin dira, lanaren duplikatua eta sartzeko kopia.

Testuinguruaren eremua

Ekoizlearen izena

Eibarko Udala

Artxiboaren historia

1992. urtean, Eibarko udaleko Euskara sailak 20 zinta edo kasete entregatu zituen Artxiboan, XX. mende hasieran jaiotako hainbat eibartarri egindako grabazioak zituztenak; horrela eratu zen Ahozko Artxiboa helburu bi hauekin: Alde batetik, esparru historikotik edo ikerketaren esparrutik sortutako ahozko iturriak gordetzea, grabazio bidez eta transkripzio bidez, eta bestetik, horrelako iturri berriak jasotzeko proiektuak egitea. Handik urte batzuetara, 1999an, "Eibartarren Ahotan" edo "La Historia en boca de sus protagonistas" izeneko proiektua ipini zen martxan, Eibarko pertsona nagusiei elkarrizketak egin eta



ahozko ondare hori biltzeko xedez; eta aldi berean, bideoan, XX. mendearen hasierako pasadizoak, gertakizunak eta ipuinak jaso. Artxibo horren barruan daude baita "Eibar Kantuz Kantu" proiekturako egindako grabazio guztiak; belaunaldiz belaunaldi gurasoengandik seme-alabengana iritsi diren bertsoak, koplak eta kantuak batzearren egindako proiektua, izen bereko liburuaren corpora osatu zutenak.

Sarrerari buruzko datuak

Esku-aldaketa.

Edukiaren irismena eta egitura

Garrantzia eta edukia

Artxibo honetako grabazioek ahozko transmisioa nagusitzen zen gizartean jaio eta bizi izan zen belaunaldi baten azken lekukotzak jasotzen dituzte. Belaunaldi horrek Euskal Herrian zein European azken 100 urteetan gertatu diren aldaketa sozial eta teknologiko sakonak bizi izan ditu. Ahozko dokumentu hauetan aztertzen da zer transmititzen den (edukia, historia) eta nola egiten den transmisio hori (ahozkotasunaren baliabideak, hizkuntzaren egiturak). Grabazioen multzo handiena Gerra Zibilaren aurreko testigantzei dagokie; izan ere, gertaera hark inflexio-puntua suposatu zuen hiriaren eta haren inguruaren garapenean. Ezaugarri politiko, ekonomiko, kultural... ezberdineko bi gizarte mota zirela esan daiteke, oso gizarte bereziak gerraren aurrekoa eta ondorengoa. Nabarmendu behar dira II. Errepublikaren aldarrikapenaren 70. urteurrena zela-eta une historiko hura eta Espainiako Alderdi Sozialista Langileak, legeztatua izan ondoren, 1976an Astelena frontoian egin zuen lehen mitina bizi izan zituztenei egindako grabaketak. Mitin hartan Benigno Bascaran, Enrique Mugica, Alfonso Guerra eta Felipe Gonzálezek hartu zuten parte.

Antolamendua.

Grabazioak, proiektuka eta bildumaka egindako numerazio seriatu baten arabera daude antolatuta.

Erabilera eta sarbidea: Baldintzak

Eskuratzeko baldintzak

Izaera mugatuko artxibo-funtsa Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen arabera.

Erreproduzitzeko baldintzak

Erreprodukzioa mugatua.

Hizkuntza / dokumentuen idazkera

Euskara/Gaztelera

Ezaugarri fisikoak eta betekizun teknikoak

Orokorrean ona, grabazio zaharrenek kalteren bat edo beste badute.

Deskribapenerako baliabideak





Grabazioen zatirik interesgarrienei egindako 3.512 laburpenen katalogo deskribatzailea eta 85 elkarrizketaren transkripzioak.

Lotutako dokumentazioaren eremua

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokalekua.

Eibarko Udal Artxiboa.

5.2. Kopiei buruzko informazioa

www.egoibarra.com webgunean dago "Eibartarren Ahotan" proiektua datu-base batekin batera, 1.065 erregistro eta 1.030 audio eta bideo zati inguru daude bilatzeko moduan.

Deskribapen Kontrola

Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón artxibariak egindako deskripzioa udal dokumentazioa iturritzat hartuta

Arauak

ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2000

Deskribapen-data

2013-04-12

